

## **bizkaiko foru liburutegia**



**erabiltzeko gida**

## BEHEKO SOLAIRUA

Foru Liburutegirako sarbidea da. Bertan, langileek erabiltzaileei adierazten diete nora joan behar duten, erabiltzaile horiek zein informazio mota behar duten kontuan hartuta. Horrez gainera, solairu honetan, honako atal hauek kontsultatzeko aukera dago:

### Tokiko informazioa

Bizkaiko Lurralde Historikoari buruzko kultur informazioa da.

### Ikasketa Gela



Ikasteko 98 plaza daude, edonor sar daiteke; ez da beharrezkoa liburutegira sartzeko txartela. Baimena dago norberaren liburu eta dokumentuak erabiltzeko.

### Argitalpen Unitatea

Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen argitalpenak saltzeko lekua da.

## 1. SOLAIRUA

Lehenengo solairu honek izaera orokorra du. Bertara, ikertzaile ez diren erabiltzaileak joan daitezke, baldin eta 1956. urtetik geroko monografietan interesaturik badaude.

### Nola eskatu liburu bat?



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Kultura  
Saila  
Departamento  
de Cultura

Foru Liburutegia  
Biblioteca Foral

SIGNATURA

Izenburua / Título.....

Egilea / Autor.....

Liburukia / Volumen.....

Urtea / Año.....

Erabiltzailearen datuak / Datos del usuario

Izena eta abizenak / Nombre y apellidos.....

Txartel zenbakia / N° tarjeta..... Gizona / Hombre  Emakumea / Mujer

Data / Fecha..... Sinadura / Firma

**Edozein material mota eskatu ahal izateko, erabiltzaileak fitxa bat bete behar du. Bertan, kontsultatu nahi duen lanaren datuez gain, bere izen-abizenak eta sinadura adierazi behar ditu.**

Hemen ere hainbat zerbitzu daude:

### **Liburutegiko dokumentazio Gela**



Gela honetan, dokumentazio, bibliotekonomia, artxibistika, museologia eta bibliografiari buruzko monografia-bilduma handi bat dago; edonork eskura ditzake monografia horiek. Bertan, irakurtzeko 10 gune daude.

### **Interneterako sarbidea**

Zerbitzu honetarako, liburutegiak internet gela bat du, 16 ordenagailurekin. Erabiltzaileek gehenez ere egunean ordu batez erabili ahal dute zerbitzu hau. Horrez gainera, liburutegiak wifi konexio-zerbitzua ematen du eraikin osoan. Kasu horretan, ez dago mugarik denboran.

### **Erreferentzia gela**



Gaien arabera antolatutako entziklopediak eta hiztegiak, sailkapen hamartar unibertsalaren arabera. Edonork eskura ditzake gela honetan dauden lanak; zuzenean gelan egin daiteke kontsulta, eta ez da, horretarako eskabiderik bete behar.

## **Gaien taula (SHU)**

**0. Orokorrak.**

**1. Filosofia. Psikologia.**

**2. Erlijioa. Teologia.**

**3. Giza Zientziak. Ekonomia. Zuzenbidea. Hezkuntza.**

**5. Matematika. Natur Zientziak.**

**6. Zientzia aplikatuak. Medikuntza. Teknologia.**

**7. Arteak. Arte Ederrak. Kirolak.**

**8. Hizkuntza. Hizkuntzalaritza. Literatura.**

**9. Geografia. Biografiak. Historia.**

## **Itsuentzako gela**

Erabiltzaile itsuentzat edo ikusmen-arazo handia dutenentzat egokitutako gela. Braille sisteman idatzitako liburuak, ahalmen handiko lupa, eta itsuentzat software berezia duten liburu-eskanerrak daude.

## **2. SOLAIRUA**

Aldizkako argitalpenak, historikoak zein egungoak, kontsultatzeko interesa duten erabiltzaileei zuzenduta dago solairu hau.

### **Hemeroteka**



Hemerotekan 600 aldizkari-titulu inguru daude, gai askotarikoak; horrez gain, 20 egunkari-titulu inguru (naziokoak zein nazioartekoak. Argitalpen horiek, besteak beste, ingelesez, frantsesez, euskaraz eta gaztelaniaz izan daitezke.

Argitalpen horien azken zenbakiak gelan daude edonork hartzeko moduan.

Era berean, solairu honetan beste gune bat dago, beste hainbat jarduera egiteko (erakusketak, liburuen aurkezpenak, eta abar).


### 3. SOLAIRUA

Solairu honetan, honako zerbitzu hauek daude:

#### Genealogia eta Heraldika

Liburutegiak aukera ematen du deitura batzuen armariak kontsultatzeko, García Carraffa, Piferrer, Atienza, Kerexeta, eta abarren lanen bidez.

**Oro har, liburutegiak dituen material guztiak liburutegiaren OPAC katalogoan kontsulta daitezke. Liburutegiaren web orrialdearen bitartez ere ([www.bizkaia.net/foruliburutegia](http://www.bizkaia.net/foruliburutegia)) sar daitezke katalogo horretan.**



#### Aldizkari ofizialak



Aukera dago Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Estatuko Aldizkari Ofiziala eta Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala kontsultatzeko, paperezko bertsioan zein mikrofilmotan. Horrez gainera, Bizkaiko udalen arau subsidiarioak daude.



## 4. SOLAIRUA

Solairu honetan, **ikerlarientzako aretoa** dago. Erabiltzailereren batek, 1956. urtetik aurreko monografia bat kontsultatu nahi badu, areto honetan egin behar du kontsulta. Areto horretan, honako atal hauek daude:

### Hemeroteka historikoa

Liburutegian, 1956. urtearen aurreko aldizkako argitalpen asko daude. Erabiltzaileek aukera dute agiriak mikrofilmetan kontsultatzeko.

### Ondare-erreserbarako funtsa

Funts honek 1831. urtearen aurreko liburuak biltzen ditu, besteak beste, liburutegiak dituen eskuizkribuak eta inkunabileak. Gehienak digitalizatu egin dira, eta Interneten kontsulta daitezke.

### Bilduma bereziak

Partikular batzuen bilduma garrantzitsuak dira, liburutegiari dohaintzan eman zaizkionak edo liburutegiak eskuratu dituenak. Arrizubieta, Beyris, Irigoien, Landeta, Navea, Sota, Larrouyet, Egileor, eta abar.

### Kartografia



Mapa, plano eta laminen bilduma handia; gehienak digitalizatuta daude.

### Grabatuak

Bibliotekan 900 grabatu baino gehiago daude, gehienak digitalizatuta.

### Jon Bilbao funtsa

Bizkaiko Foru Aldundiari dohaintzan emandako funtsa da; Jon Bilbao bibliografoaren lana biltzen du.

### Irigoien funtsa

Funts bibliografiko eta dokumentala da; 3.685 bolumen ditu, baita Alfonso Irigoien filologo eta euskaltzainaren artxibo pertsonala ere. Foru Aldundiari dohaintzan emandako funtsa da.

## 5. SOLAIRUA

Liburutegiko azken solairuan bi areto daude, tamaina desberdinekoak:

### **Hitzaldi aretoa**

### **Lantegietarako gela**

Kultur jarduera ugari egiten dira areto bi horietan; batetik, irakurketa-txokoa, hitzaldiak eta antzeko ekitaldiak eta, bestetik, hainbat ikastaro eta lantegi, era askotakoak: genealogia eta heraldika, liburuen ilustrazioa, sormen-idazketa, adierazpen-irakurketa, eta abar.

## ORDUTEGIA

### **Neguko ordutegia**

Astelehenetik ostiralera: 8:30-20:30

Larunbatetan: 9:00-13:30

### **Udako ordutegia**

Astelehenetik ostiralera: 8:30-19:30

Larunbatetan: 9:00-13:30

## FUNTSAK

Liburutegian, **300.000** bolumen baino gehiago daude. Horietatik, 41 inkunableak dira; 903, XVI. mendeko tituluak; 2.299, XVII. mendekoak, eta 8.145, XVIII. mendekoak. Bizkaiko Foru Liburutegiak ondare-izaera du, hau da, bertan gordetzen diren funtsak kontserbatzea du helburu nagusi. Izaera hori dela eta, liburutegiak mailegu-zerbitzurik ez die ematen erabiltzaileei.

## BESTE ZERBITZU BATZUK

Erreprografia, kontsulta bibliografikoa eta erreferentzia, liburutegien arteko mailegua, bisita gidatuak, erabiltzaileen prestakuntza, eta abar.

## ERABILTZAILEAK

Erabiltzaileek beren burua identifikatu behar dute sarreran, liburutegira sartu ahal izateko; bertan, txartel bat emango zaie, liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko aukera emango diena.

## HELBIDEA

Diputazio 7

48008 Bilbo

Telefona: 944067702

Faxa: 944067084

Posta elektronikoa: [foru\\_liburutegia@bizkaia.net](mailto:foru_liburutegia@bizkaia.net)

Web orria: [www.bizkaia.net/foruliburutegia](http://www.bizkaia.net/foruliburutegia)

